



ORIOKOUNDALA



Epaimahaiaren agiria

EUSKARAZ GAZTE literatur lehiaketaren epaimahaia 2021eko azaroaren 26an elkartu zen Orioko kultur etxean, 28. edizio honetako sariak erabakitzeko.

Epaimahaia hauek osatu zuten: Karkara aldizkariko Eli Manterolak, Aiako Udaleko kultur teknikari Eli Lasak eta Orioko Udaleko euskara-teknikari Jabier Zabaletak.

Epaimahaiko kideok eskerrak eman nahi dizkiegu lehiaketan parte hartu duten oriotarrei eta aiarrei; bai saria irabazi dutenei eta bai aurten gabe geratu direnei. 10 sari izaten ditugu emateko, guztira, eta, halaber, beti geratzen dira irabazleen zerrendatik kanpo lanak, argitaratzeko eta ezagutzera emateko maila polita dutenak. Pena da, baina lehiaren ajea da hori, ezta? Aurten ere izan ditugu parte-hartzaile berriak, batzuk gazte-gazteak, eta animatu egin nahi ditugu sortzen segi dezaten, prosan zein olerkitan. Erreleboa hartuko diezue noizbait lehiaketa honetako «beteranoei» :-)

Esanda bezala, 10 sari eman ditugu eta guztiak irakurtzeko aukera izango duzue Karkara aldizkarian, urtarrilean argitaratuko den gehigarri berezian, Orioko eta Aiako etxe guztietara banatuko baita, beti bezala.

Epaimahaiak, joan den ostiralean egindako bileran, banan-banan aztertu zituen lehiaketara aurkeztutako lanak eta, iritziak trukatu eta eztabaidatu ondoren, sari hauek ematea erabaki zuen:

Ipuin saila

Alor honetako accesit bat «**Azkena**» ipuinari eman diogu. Bi lagun juntatzen dira aspaldiko partez, pandemia dontsu honengatik elkarrengandik aparte urte eta erdi pasatu eta gero. Bietako batek



ORIOKOUNDALA



adikzioa garatu du bitarte horretan. Egileak asmatu du kontakizun sinesgarria eraikitzen eta ondo egituratzen, bizi eta eraginkor. Datorrela bere 100 euroko saria eta oroitagiria jasotzera: Garazi Urretabizkaia.

«**Basoaren alaba**» izeneko lanari eman diogu ipuin alorreko beste accesita. Basoan bizi den neskato bat du protagonista; bakarrik eta bakean bizi dena, hiritar trumoitsu bat inguratzen zaion arte. Neskatoak basoan jaso duen jakinduria baliatzen du hiriko gizona bere zurrumbilotik ateratzeko eta munduan birkokatzeko. Xalo-xalo idatzita dago, gozo, eta egileari antzematen zaio baduela ofizioa. 100 euroko saria eta oroitagiria irabazi ditu ipuin honekin Josu Galdosek. Datorrela jasotzera.

Ipuin alorreko hirugarren saria, 150 euro eta oroitagiria, «**Leihotik**» ipuinak irabazi du. Guztiok etxean denbora gehiago pasatu behar izan dugun honetan, horri etekin literarioa atera dio egileak: leihoan jarri eta bizilagunen joera eta bizimoduetan jarri du arreta, kontakizun samurra lortuz. Egilea ezaguna dugu lehiaketa honetan, lehen ere irabazi izan baitu saria zenbait aldiz: Ane Etxabe Usandizaga.

Iñaki Iturainek irabazi du ipuin alorreko bigarren saria, 200 euro eta oroitagiria, «**Txikitako lagunak**» lanarekin. Aspaldiko bi lagun dira protagonista, txikitatik elkar ezagutzen dutenak, baina joera oso desberdinekoak eta elkarren bestelako bideak hartu dituztenak. Egileak trebezia erakusten du kontakizuna lotzeko, lehengo eta oraingo kontuak uztartzeko eta bukaera tragikoa iragartzen duten pistak han-hemen uzteko. Erabili ohi duen euskara zehatzean idatzita dago, gainera. Etorri, Iñaki, mesedez, saria jasotzera.

Aurtengo lehendabiziko saria, 300 euro eta oroitagiria, «**Eromena**» izeneko ipuinak irabazi du. Gaur egungo gazte baten bizimodua kontatzen digu, bere poz eta ezinekin: estresa, lan prekariora, maitasun-eta sexu-kontuak, musika, pastillak... Egileak ondo harilkatzen du kontakizuna eta bixi-bixi idatzita dago, grazia handiarekin. Beti oso gustura irakurtzen ditugu bere lanak, badu-eta kontaera berezi bat. Sarituaren izena: Libe Larrarte.



ORIOKOUNDALA

Euskaraz 
bizi-bizi

Olerki eta bertso saila

Epaimahaiak «**Gainazalean**» izeneko olerkiari eman dio olerki eta bertsoen saileko accesit bat. Bertso libreko olerkian, egilea etzanda dago ohe ganean, loak noiz hartuko duen. Maindireetako loreei begira galtzen da eta loak hartu bitartean, «pitzadurek zulatutako gorputza» amildu bitartean, burutik pasatzen zaizkionak kontatzen dizkigu, eder, sotil... Egilea gazte-gaztea da eta gaia baduela erakutsi du. 100 euroko saria eta oroitagiria irabazi ditu olerki honekin. Etorri jasotzera: Maxe Zinkunegi.

Beste accesita «**Bizitza honek ez du askorik balio**» olerkiari eman diogu. Egileak bere kezka esistentzialak biltzen ditu olerki eder honetan; arrangura agertzen du bizitzari balioa ematea zein zaila egiten zaion esanez: «bai zaila den (...) naizen leize sakon huts eta izugarriaren aurrean gogo betez umiltzea...», kontatzen du zein zaila egiten zaion barru dena hustea «gainezka» dagoen bere buruari, berez «izugarri sinplea» izan arren. Egileak irabazi izan ditu sariak gure lehiaketan lehen ere, baina seguru nago oraingo hau berezia gertatuko zaiola, ez baita egunero gertatzen aita-alabek ekitaldi berean sari bana jasotzea. Zorionak bie! Olerki honekin 100 euroko saria eta oroitagiria irabazi ditu Josu Galdosek.

Olerki eta bertsoetako hirugarren saria, 150 euro eta oroitagiria, «**Ikus(i)ezinak**» izeneko bertso-sortak irabazi du. Egileak arrotzak zaizkigun sufrimenduen zerrenda bat osatu du eta hor aipatu ditu Haiti, La Palma, Gaza, Afganistan, Afrika... Ezagun du egileak ederki menderatzen duela bertsolari-ofizioa eta ondo taxututako bertsoak prestatu ditu. Datorrela saria jasotzera Ainhoa Mujika.

Mikel Iruretagoienak irabazi du 200 euroko bigarren saria, «**Klimaren kilimak**» izeneko bertso-sortarekin. Bere ohiko bertsoera biziarekin osatu du hamar bertso soko sorta, aldaketa klimatikoari buruz. Bertso landuak dira eta, gaia serioa den arren, edo horrexegatik, egileak ahalegina egin du umorezko printzak ere ateratzen eta emaitza gustagarria lortu du. Ohituta gauzka horretara Mikelek. Datorrela sariaren bila.



ORIOKOUNDALA



Aurtengo lehiaketaren lehen saria, olerki eta bertso-tako sail honetan, beste bertso-sorta batek irabazi du. «**Atxakiak**» du izenburua 11 bertsoz osatutako sortak eta bertan egileak kontatzen digu bere alter egoa nola joan zen Kanboko «balneariyua», gorputz osoko minen erremedioaren bila. Bertso bizi-biziak dira, alaiak, irribarrea eragiten digutenak, eta egilea ederki kokatzen da Hegoaldetik Iparraldera doan euskaldunaren paperean, sortzen zaizkion hizkuntza-endredoak eta bestelakoak grazia handiz kantatuz. Egilea Garazi Urretabizkaia da.

Orio, 2021eko abenduaren 3a.